
01 12

NERBIOI UR-JAUZIA


Nerbioi jauzia edo ur-jauzia Delikako hegoaldetik 6 kilometrora kokatuta dago (Araba), Burgoseko probintziako mugan. Desnibel handiena duen Iberiar Penintsulako ur-jauzia da, 222 metro dituela (790 eta 578 metroko koten artean).

Nerbioi ibaia Ibaizabaleko adarra da, nahiz eta bere ezaugarriak direla eta, batzuetan Nerbioi nagusitzat jo eta Ibaizabal, berriz, adartzat.

Inguru geologikoa karezkoa da nabarmen (Subjinakako kare-lurrak), beraz, urek lurpetik zirkulatzeko joera dute eta horregatik, ubidea lehor egoten da ia urte osoz eta ur-jauzia eratzen da bakarrik sasoi euritsuetan edo urtzaldian. Hori, gehienera, urtean bi hilabetez inguru gertatzen da.



Ortoargazkia 2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 501564.4606 // Y: 4754016.6173 // Z: 795 m (jauzia).1 Ur-jauziaren ertza. 2 Begiratokia. 2009ko ortoargazkia ur-jauzia hoberen adierazten duenetariko bat da, harana itzalpean dagoelako.



Nerbioi Ur-jauziaren sekzioa.



Iturria: CC Eusko Jaurlarizta. Irekia. Israel Robles.